

SUSTATU 28



PROYDE-PROEGA

*Toki xume askotan jende xume askok
gauza xume asko eginez, mundua alda dezake*

PROIEKTUAK

MOTAK	FINANTZAKETA
Amaitutako lankidetza proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	88.093,17€
Martxan dauden lankidetza proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proega funtsekin	221.062,50€
Lankidetza proiektuak Proegaren funtsekin bakarrik	25.000,00€
Larrialdi proiektuak	14.648,00€
Sentsibilizazio proiektuak erakundeen diru-laguntza eta Proegako funtsekin	4.560,00€
GUZTIRA	354.363,67€

Informazio ekonomiko zehatza eskura, hemen:



LANKIDETZA PROIEKTUAK

LANDA EREMUKO MAYA Q 'EQCHI' EMAKUMEEN AHALDUNTZE EKONOMIKO ETA POLITIKOA ZONA REINA-N *Guatemala*

Proyde-Proegak urteak daramatza Guatemalako Prodesa elkartearen hezkuntza proiektuetan laguntzen. Proiektua bost landa-komunitatetan eramango da aurrera. Zona Reina izeneko eskualdean aurkitzen dira.

Zona Reinaren ezaugarri nagusiak pobrezia-maila handiak eta bazterketa dira, nekazari maya q 'eqchi' gehiengoa den biztanleriari eragiten diotenak. Egoera horrek batez ere emakumeei eragiten die. Proiektu honek helburu hau du: talde berri bat ahalduntzeko ahaleginekin jarraitzea emakume nekazarien lana sendotuz, autonomia ekonomikorako eta partaidetzarako gaitasunak izan ditzaten.

Nekazaritza-ekoizpen ekologikorako prestakuntza-prozesu baten eta pres-takuntza politiko prozesu baten bitartez egingo da. Emakume-lider komunitario talde batek eragin politikorako eta haien eskakizunetarako gaitasunak izatea ahalbidetuz.



LANKIDETZA PROIEKTUAK

HAURRENTZAKO KALITATEZKO LH-KO PROGRAMA INDARTZEA, LANDA ESKOLEN SAREARI LAGUNDUZ

Togo

Arazo larri bati aurre egiten dion proiektu honekin jarraitzen dugu: Sabanetako eskualdean dagoen hezkuntza-baliabide eskasari. Alde batetik, Sareko 40 eskolen funtzionamendua babestea bilatzen du, ikastetxeei eskola-materiala, material didaktikoa eta idazkaritzakoa emanaz; eta eskola-jantokiak babestea, ikasle askok zerbitzu hori behar dutelako ikasturtearekin aurrera jarraitu ahal izateko. Bestetik, Sareko eskola batean putzu bat eraikiko da Tambinguen eta Sareko zuzendaritzako 22 langileen prestakuntza sustatuko da.



LARRIALDI PROIEKTUAK

Ukraina



Ukrainako gerrari erantzunez, Kristau Eskoletako Anaien Institutuak, Fondazione De La Salle Solidarietà Internazionale ONLUS delakoaren bitartez, "#LaSalleForUkrainians" ekimena abiarazi zuen 2022ko martxoan. Kanpainak kontzientzia soziala sortu zuen salletarron munduan, eta larrialdiko ekintza humanitariorako laguntza finantzarioa eman zien herri ahuletan gerrak eragindako pertsona eta gizarteei.

Proyde-Proegak kanpainan parte hartu zuen La Salleko gainerako GGKEekin eta erakundeekin batera.

SENTSIBILIZAZIO PROIEKTUAK

BIDEZKO MERKATARITZA SUSTATZEN

Eibar



Proiektuaren helburua Eibarko biz-tanleek Bidezko Merkataritzaren printzipioak barneratzeko prozesuan jarraitzea da, kontsumo arduratsua eguneroko praktika gisa bultzatuz. Ez bakarrik helduengan arreta jarriz, baizik eta eremu horretan haurrak heztearen aldeko apustua eginez, kontsumo arduratsuaren, elkartasunaren eta planetaren zaintzaren balio horietan hazteko aukera izan dezaten.



Proiektua aurrera eramaten da Egoaizia eta Poyde-Proega GGKEen arteko koordinazioari esker.

Hauek dira egindako jarduerak: Lehen Hezkuntzako tailerra, Haur Hezkuntzako tailerra, Sukaldaritza tailerra, Bidezko Merkataritzako Nazioarteko Eguna.

SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

2022-2023

Ikasturteko kanpainaren goiburu motibagarria hau izan zen: “Ur zikina ezin da garbitu (Afrikar esaera zaharra). Zaintzea gure esku dago”. Kanpaina urari lotutako problematikan oinarritu da, Garapen Iraunkorreko 6. Helburuan (6. GIH). Uraren erabilgarritasuna eta kudeaketa iraunkorra nahiz guztiontzako saneamendua bermatzea.

Gure erakundeentzat, ura ezin da beste merkantzia bat bezala erabili beste askoren artean. Ura ondasun publikotzat hartu izan da beti, eta, ondorioz, modu arrazionalen eta solidarioan erabili behar da. Justiziaz banatzea organismo publikoen erantzukizun ukaezina da.



UDAKO BOLUNTARIOTZA

2022



Pandemiaren ondorioz, ez zen atzerrian proiektuak garatzeko boluntario helduentzako deialdirik egin, salbuespen bakar batekin: Abidjango (Boli Kosta) Akwaba kaleko haurrentzako harrera-zentroa. Izan ere, Akwabak Proyde-Proegako bi boluntarioren bisita jaso zuen udan. Biak beteranoak dira, eta dagoeneko ezagutzen dituzte lekua eta esperientzia, hainbat aldiz parte hartu dutelako bertan.




Gure boluntarioen lana, udan, batez ere, eskolako zereginetan laguntzea eta joko- eta kirol-jarduerak eta jolasak antolatzea izan zen, neska-mutilek ondo pasa zezaten eta, aldi berean, gizarteko bizitzarako onuragarriak diren balioak gara zitzaten.

Gure bi boluntarioak oso pozik itzuli ziren esperientziatik, Akwabako jendearen heziketari eta zoriontasunari ekarpen txiki bat egin izanaren sentazioarekin. Baina, batez ere, bizitzari buruzko irakaspen baliotsu asko jaso dituztelako pobrezia egoeran bizi diren pertsonekin harremanetan egonez.

MEMORIA EKONOMIKOA


FUNTSEN BANAKETA JATORRIAREN ARABERA

- Erakunde publikoak: 283.915,67€
- Proega beraren funtsak: 120.784,67€




GASTUEN BANAKETA


- Sentsibilizazioa eta boluntariotza: 5.149,23€
- Funtzionamendua: 37.393,17€
- Proiektuen finantzaketa: 354.363,67€



PROEGA BERAREN FUNTSEN JATORRIA



FINANTZATUTAKO PROIEKTUEN BANAKETA GEOGRAFIKOA (DIRU SARREREN ARABERAKOA)



BAZKIDE EGIN edo DOHAINTZA EMAN

Inprimatu orrialde hau edota gure webgunean sartu

Izen-abizenak: NAN:

Helbidea: Telefonoa:

Posta kodea: Herria: Probintzia:

Ordainketa modua

☐ Banku transferentzia **(ES29 2095 5010 34 1061863279)**

☐ Bizum **02359**

☐ Banku-helbideratzea

Kontuaren titularra

Titularraren NAN

Kontu zenbakia _ _ _ _ _

Aldizkakotasuna

☐ Urtero

☐ Sei hilero

☐ Hiru hilero

KUOTA €


PROYDE-PROEGA Fundazioa da zure datu pertsonalen arduraduna, Fundazioarekin duzun lankidetzat eta ondorengo harremana kudeatzeko. Banku-helbideratzearen aukera eskatzeko agiri hau sinatuta, espresuki baimena ematen diozu Fundazioari, bi aldeen arteko harremanak dirauten bitartean, zure laguntzaile-kuotaren ordainagiriak kobratzeko adierazitako kontuan eta mugarik gabe aurkez ditzan.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatze eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere. Datuen Babesari buruzko informazio gehigarrian azaltzen den bezala; gure instalazioetan esaka dezakezu, edo helbide elektroniko honen bidez: proega@lasalle.es

Bidali mesedez agiria helbide honetara:
PROYDE-PROEGA FUNDAZIOA
Madalena Jauregiberri 2, 20014 DONOSTIA

TITULARRAREN SINADURA

<https://proyde-proega.org/nola-lagundu/>



Nola lagundu? - Proyde - Proega

Bazkide egin Egin dohaintza Bizum-en bidez Dohaintzak ziurtatzea eskatu Bazkide egin
Please enable JavaScript in your browser to complete this form.Nombre y apellidos / Izen
abizenak *FirstLastDNI / NAN: *Dirección postal / Posta helbidea *Código postal / Posta kode...

★ Proyde